

opusdei.org

Asko ikasi dut eta nire balore eskala aldatu egin dut

Nafarroako Unibertsitateko hamabost unibertsitarioek egin duten bidaiak solidaritatea du helburu. Haien artean, Natalia Fernández Arrechea, Marta Unceta eta Sandra Díaz, donostiarrak, eta Estíbaliz Ugidos, bilbotarra

2006 Mar 19

Egun horietan zehar Kampala-ko (Makerere University) beste

unibertsitarioekin batera lan sail
batean parte hartu dute, Goimendi
Ikastetxe Nagusiak, Opus Deiren
egintza korporatiboak, antolatua.
Boluntarioek, Medikuntza ikasleak
direnez, HIESek utzitako
umezurtzentzako ikastetxe batean
lan egin zuten, baita HIESen
haurkako sentsibilizazio jarduerak
burutu eta osasun hezkuntza saioak
eman zituzten.

Etxeko arretan ere aritu ziren.
Ugandako Medics Club-ekin
elkarturik, gaixoei bisitak egiteari
ekin zioten. Erakunde honek badu
klinika mugikor bat Kampala-ko
auzo pobreetako gaixoei osasun
laguntza eskaintzeko.

Lan handiko egunak izan dira eta ez
dira une gogorak falta izan. Nataliak
(Medikuntzako 4.kurtsoko ikaslea)
dioenez: “gogorra izan zen, eta
gainera malariaren aurkako

tratamenduaren albo-ondorioak sentitzen genituen gorputzean”.

Zerk bultzatu zaitu hiru aste ematera gaixoen eta umezurtzen artean?

Urtean zehar denboraz eskas gabiltza, baina udan aukera zoragarria dago besteei laguntzeko. Lan sail honetan bio-osasun arloko lanaz gainera, matematika, ingeles hizkuntza eta katekesi eskolak ematen genituen umeei. Horretaz aparte, arkitekto baten eta herriko hiru langileen laguntzarekin, oilategi bat eraiki dugu. Horri esker, astean behin, arrautzak eta oilaskoa jateko aukera izango dute eta oilategia zaintzen ikasteko; aurrerantzean hori izan daiteke umezurtz batzuen bizibidea.

Medikuntza ikasten dugunok Kampala-ko auzo pobre batean gaixoekin esperientzia izateko aukera izan dugu. Ikastetxeko

haurrei osasun azterketa egin genien ere; oinarritzko gauzak ziren: zauriak sendatu, malariak jota zeudenei sendagaia eman, oinarritzko higieña irakatsi...

Makerere Unibertsitateko ikasleekin elkarlanean aritu zarete. Nolakoak dira Opus Deiko kideak Ugandan?

Egia esan, Teemba zentroko emakumeak aparteko pertsonak dira, izugarritzko lan ederra egiten ari dira han. Lituania, Ugandan eta Iruñan, non ikasten ari naizen, ezagutu ditut Opus Deiko zentroak eta denetan espiritu bera gordetzen da.

Zu sendagile izango zara hemendik gutxira. Nola aurre egin HIES gaixotasunari Afrikan?

HIES problema izugarria da Afrikan. Ugandan, azken urte hauetan, gutxitu dira HIESez infektatuak. Ez

da izan, ordea, preserbatiboen banaketa edo beste kontrazepzio kanpainen bidez. Gazteen artean, gaitz hau gutxitzeko, lehenik sexu harremanak ez izatea azpimarratu dute; bigarrenez, harremanak atzeratzea (batez ere arrisku taldeetan) eta azkenik, –azkenik berriro diot- preserbatiboa erabiltzea. Garrantzi handikoa da gaitz hau ezagutarazi eta gobernuek erantzukizunez har dezaten. Gauzak isilduz ez dago irtenbiderik arazoentzat, are eta gehiago hain kutsakorra eta hilkorra den eritasun honen kasuan.

Arrainak oparitu ala arrantzan erakutsi?

Beti hobe arrantzan erakustea. Guk, adibidez, oilategia zaintzen irakatsi diegu, baita oinarrizko higiene arau batzuk, ongi lan egiten, gauza txikiak zainduz...

Gauza asko egin dituzue hiru astetan, baina zuk ezin duzu mundua aldatu.

Edo zeu zara aldatu zarena, topikoa bada ere?

Egia da hiru astetan ezin dela mundua aldatu, baina besteentzat lan egitea beti gauza ona da. Gainera, eman baino, hartu egiten duzu gehiago. Askok ikasi dut hango jendeengandik eta nire balore eskala aldatu egin dut. Proiektu hau, gainera, gure Unibertsitateko boluntarioak sentsibilizatzeko era bat zen. Hamabost pertsona joan gara, baina Ikastetxe Nagusi osoak parte hartu du.

Hemen ere gaixoak eta pobreak badira. Ez al da pixka bat turistikoa izan zure bidaia hori?

Alde batetik esan daiteke turistikoa dela; alde guztietan daude pobreak, baita gure familietan ere; baina dena bateragarria da eta, batzuetan,

halako proiektuek jendea bultzatzen
dute besteen alde lan egitera;
sentsibilizazio kontua da, eta gero
hurbilagoko inguruan, familian
bertan, herriko zaharren artean, eta
abar, nabarituko da.

Oroitzapenen bat?

Gertaera asko datozkit burura.
Irribarretsu dira beti. Astean bi edo
hiru aldiz argia joaten zen; ura ere
bai. Noiz etorriko zen galdetzean,
irribarrez esaten ziguten: “inoiz ez
dakigu, ez du axolarik”. Beste batean,
mutikoei eguzkia marrazteko eskatu
genien eta, Samuelek, sei urteko
batek, beltza eta iluna pintatu zuen
eguzkia, baina geroago ikastetxeko
mutiko irribarretsuen zen.

.....

